

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



**Gerratearen
aztarnak**
Fertxu Izquierdo
PAMIELA
126 orrialde
13,50 euro


Txantreako lotsa- tiaren mendekua

Fertxu Izquierdok (Iruñea, 1975) Pamiela argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Gerratearen aztarnak* liburuak poemak itzaletan bizirautera kondentatutako guztien izenean idatzita daude. Musika talde anitzen kantak gogora ekarriz aurkeztu ditu olerkariak bere gerrate ezberdinak. Pobrezia, itxaropen eskaseko lan astuna edota langabezia bezalako eguneroko egoerei aurre egiteko aurrera eraman beharreko gerratea; amodiora eta desamodiora behartzen gaituzten gatazkak... Eta, nola ez, munduan zehar ematen diren egoera gordinak ere islaturik daude Fertxu

Izquierdoren poemetan. Gernikaren bonbardaketa bezala, Txetxeniako Grozny hiriaren suntsiketa, Palestina, Kolonia... **I**

Berrogeita hamar sendabelar

Nekane Martiarenak Ttarttalo argitaletxearen bitartez plazaratu duen *50 hierbas buenas* izenburuko liburuan, gure inguruko edozein txokotan erraz aurkitu ahal ditugun berrogeita hamar sendabelarren argazkiak eta haien berezitasunak azaltzen dira, zehatz-mehatz. Osasuna bihurtzeko gaitasuna duten berrogeita hamar belar horiek tentu osoz hartu behar dira, gorputzeko zenbait eritasun kentzeko primerakoak izan arren, neurritz kanpo hartzen badira litekeena delako beste gaixotasunen bat eragitea. Nekane Martiarenak xehetasun handiz aurkeztu ditu belar bakoitzaren ezaugarriak, zertarako balio dezaketen, eta haietatik zenbat hartu behar den eragina onuragarria izateko. Sukalderako errezeta batzuk ere eskaintzen ditu Martiarenak liburuan. **I**



**50 hierbas
buenas**
Nekane Martiarena
TARTTALO
212 orrialde
23,50 euro



Gaixotasunak historian
Batzuen artean
GAIK
150 orrialde
17 euro

Medikuntza eta gaixotasuna historian ulertzeko moduak

Historiaurrean arabiarrek hedatutako sendagintzatik hasita Txina eta Indiako medikuntzan barrena gaur arte, gaixotasunak ulertzeko egon diren eta egun dirauten era ezberdinak jaso dituzte Iñaki Gonzalez Garai, Koldo Ortega eta Alizia Stürtzeren artean *Gaixotasunak historian* liburuan. Erdi Aroko legenarra bezala, ondorengo garaiaetan jasan behar izan ziren izurriterik garrantzitsuenak: zekaleak eragindako suharren gaitza, Napoleon garaitu zuen tifusa, sifilia eta sifilitiko ospetsuenak, benetako koleraren zazpi pandemia handienak, Kochen baziloaren aurkako borroka etengabea, sukar horia, baztanga eta paludismoa, besteak beste. Eta sendagaien historia, immunologia, terapia genetikoak eta emakumeak medikuntzan izandako rola. **I**

BetiZuzaleek jolasteko aukerak

ETB-1eko BetiZu saioan oinarrituta dauden denbora-pasako jokoak eskaintzen dituzte *BetiZu paperak* koadernoek. Bakoitza adin mota jakineko hurrei zuzendua dago 3 eta 4 urtekoentzat prestatua dago bat, 5 eta 6 urtekoentzat, bigarrena; 7 eta 8 urtekoiei begira hirugarrena; eta 9, 10 eta 11 urte bitartekoei laugarrena. Agertzen dituzten jolasen zailtasunak ere neska-mutikoen adinari egokituak daude. Txikienei, margotzeko, irudi bat bere itzalarekin lotzeko edo gauza bat norena izan daitekeen asmatzeko orriak eskaintzen zaizkie. Helduxeagoiei, usaimena, dastamena, ikusmena, entzumena eta ukimena lantzeko aukerak eskainiz. Koskortuenei berriz, gorputzeko atalak ingelesez nola esaten diren bilatzeko jolasak, eta kolore kateak osatzeko erak ematen zaizkie, besteak beste. **I**



**BetiZuok...
jolasteko!**
Cyril Hahn
BALEUKO, EITB,
IBAZABAL
16, 20, 24 orrialde
7 euro



Hil ala bizi

R. L. Stine

ELKAR

232 orrialde

13,60 euro

Gazteei zuzendutako beldurrezko nobela

R. L. Stineren ohiko nobela da *Hil ala bizi*, Itziar Otegik euskaratu duen liburua. Gazteentzako beldurrezko istorioak idazteagatik egin da ospetsu 1943an Ameriketako Estatu Batuetako Columbusen jaio zen idazle hau. *Hil ala bizi*ko protagonistak gazteak dira: Joannaz itsuki maitemindurik dago Dex mutil xehea, baina beretzat "egokiago" jotzen duen beste mutil bat aurkitu du hark eta Dex uztekoan dabil. Horretan dabiltzala, istripu bat izango du Dexek, eta hiltzat emango dute. Joannak sentitzen du gertatua, baina ez du harengatik nigarrez denbora galtzeko gogorik

izango. Beste mutilarekin ateratzen hasiko da. Halere, iraganak bizirik jarraituko du, ezin askatzeko moduan. I

Lagunari ezusteko gozoa emateko hartu beharreko neurriak

Aitor Aranek euskaratu du Émile Jadaoulen ipuina da *Otsoa dator!* Etxeko txikienek goza dezaten sortutako lana da. Kartoi lodizko orriz osatutako liburua ireki ahala, basoko animaliak aztoraturik aurkituko ditu irakurleak. Untxi bat dator korrika orein handiaren etxera, otsoa datorrela eta atea irekitzeko eskatuz. Sartzen utziko dio oreinak, untxiari eskua emateko eskatuz eta biak leihotik begira jarriko dira. Handik gutxira txerritxoa etorriko da, otsoa datorrela eta atea irekitzeko eskatuz. Eta gero hartzatxoa... I

Otsoa dator!

Émile Jadoul

IBAIZABAL

18 orrialde / 7 euro



ANTTON KAZABON

«Nobelatxo hau bizia zabalago egiten duen kontakizuna da»

Nola aukeratzen da nerabeentzako gaia?

Haurrentzat idaztean, magiaren munduan sartzea aski du idazleak. Nerabeentzat idaztean, ordea, tentu handiz ibili behar dugu, adin horretan dena delako zuri edo beltz, dena primerakoa edo erabat traketsa. Ez dago erdibiderik. Gaia aukeratzeko orduan ere ez dago aukera izugarriarik. Maitasun kontuak ez badira, harremanen mundua izango da, bestela politika, edo sexua, drogak... Eta guztien atzetik, edo aurretik heriotzarena aipatuko nuke.

Gaztetxoek ez al diote heriotzari muzin egiten?

Ez. Nerabeen idazlan asko irakurtzea tokatzen zaigunok ederki dakigu zenbatetan azaleratzen duten heriotzaren gaia, beren idatzietan. Aitzakiarik txikienarekin, hor azalduko dute Herioaren itzala. Nerabeak ausartak dira idazteko orduan ere. Gu ez bezala. Guri erruz kostatzen zaigu nerabeentzat idaztea. Horregatik daude, beharbada, adin honetarako bildumetan hainbeste itzulpen. Nerabeek gus-tuko dituzten gaiak tratatzea ez da erraza izaten, niretzat behintzat. Hala ere, oraingoan heriotzaren gaia lantzea erabaki dut. Saiatu naiz ahalik eta modurik gozoenean aurkezten, baina bere gordintasun guztiarekin. Gaztetxoek begien bistatik kenduta, ez dugu heriotza mundutik ezabatuko. Heriotzak beti hor iraungo baitu biziari tinko atxikita.

Eutanasia, suizidioa... ez dira gai makalak!


Nire ustez nobelatxo hau bizia zabalago egiten duen kontakizuna da. Ez da heriotzari eginiko kantua. Nahiago dut begirune handiz horrelako historiak kontatu, gezurrezko munduak asmatuz gazteak engainatu baino.



egileari galdezka

Giharretako atrofia larria duen neskatoaren erabakia

Hogeitaka urte daramatza Antton Kazabonek Oiarz-zungo Hautzaro ikastolan irakasle, eta jakina, haur eta nerabe ugari ezagutu ditu denbora horretan. Haien gustu eta kezken berri dezentetaz, makina bat liburu dauzka argitaratuak haur eta gazte literaturan. Antton Kazabon idazle gisa zer edo zerk bereizten badu, nerabeentzat idazten dituen kontakizunentzat aukeratu ohi dituen gai ausartak dira. Ibaizabal argitaletxearen eskutik plazaratu duen *Txoria txori*-n agertzen duena lekuko. Sehaskatik norbaiten besoetara eta koskortzerakoan gurgil-aulkira egin beharra izan duen Milia gaztetxoaren bizitza kontatzen digu. Beste guztiek bezala noizbait oinez abiatzeko itxaropena du. Hori da bere ametsik handiena, baina inoiz ez dela gertatuko bururatzen zaio



Txoria txori

Antton Kazabon

IBAIZABAL

78 orrialde

9,80 euro

sarritan. Eta gogoasaldatzen dioten beldurrak ditu. Hamabi urte bete behar dituenean, ondotoxo daki gurasoek erruz maite dutela. Lagun onik ere ez zaio falta. Baina egunetik egunera ahulago sentitzen da, eta etsipenak esperantzari bidea irabaziko dio. Eta orduan erabakia hartuko du. Bizitzan behin baino kantatzen ez duen elorri txoria izango da. ■